



ALBAOLA

Maiatzeko ostegun goiz batean hasi zen dena. Eguzki ederra zegoen, eta natura esna ageri zen neguaren ondotik. Gure aita, Jon, pozarren zegoen erleen burrunba nonahi entzutean. Ezti-uzta bikaina izango zela esaten zuen. Eta gure ama ere, Tina, pozik zegoen. Itsasoaren tenperatura ez zen neguko hilabeteetan bezain hotza, eta horri esker denbora gehiago eman zezakeen surfean. Gainera, lan egiten zuen laborategian gaixotasun tropikal baten aurkako txertoa aurkitu zuten. Hori bai dela ospatzeko modukoa!

Tira, haritik urruntzen ari naiz...

Kontatu nahi nizuena zera zen: autobusez iritsi ginen Pasaiara. Arrantzale-herri bat da, itsasoak bitan banatzen duena: Pasai Donibane eta Pasai San Pedro. Alde batekoak beti aritzen dira

bestekoak zirikatzen, bilbotarrak eta donostiar-
rak bezala. Baina txantxetan bakarrik, edo hori
espero dut.

—Eta ze zerikusi du honek baleekin? —galde-
tu zuen Aimarrek.

—Itxaron, eta ikusiko duzu. Ez izan hain ipur-
tarina.

Jaione ari zen hizketan. Esan dizuet mundu-
ko irakaslerik onena dela? Marmarti samarra
da, baina guk haserrearazten dugulako jartzen
da horrela. Entzun beharko zenukete bere rock
taldearekin jotzen. Hemendik aste batzuetara
Atxondon arituko dira, sanpedroetan. Egun hori
noiz iritsiko irrikatzen gaude, gure herrian pa-
rranda eder bat egiteko.

—Asko ibili behar da?

Ez dakit nork galdetu zuen,
Sarak ziurrenik. Baina ez du
axola; txangoa dugun
bakoitzean, beti
galdetzen du
norbaitek.

—Ez, Albaola faktoria aurreraxeago dago,
etxeak bukatzen diren tokian.

—Hau da, oso urruti —kexatu zen Erik.

—Ez, San Pedro txikia da. Bost minutu barru
han izango gara —esan zion Jaionek.

Ez dakit zergatik zuten halako presa. Niri asko
gustatzen zitzaidan kai aldeko paseo hura.

—Zergatik daude batzuk arrosaz jantzita eta
besteak morez? —galdetu zuen Ainarak ura sei-
nalatuz.

Harengana hurbildu eta itsasora begiratu
nuen. Bi txalupa luze eta estu gure ondotik pa-
satzen ari ziren.

—Ehunzangoak dirudite —esan nuen hanka
moduko hamabi arraunei erreparatzean.

Jaionek ezin izan zion barreari eutsi.

—Traineruak dira. Entrenatzen ari dira. Herri
bakoitzak du berea, eta koloreengatik bereizten
dira. Arrosa Donibanekoa da, eta morea San Pe-
drokoa.

—Eta traineru horiak ere badaude? —galdetu zuen Erikek—. Seguru ez duzuela beste inor ezagutzen horia gogokoen duena.

—Eta urdinak badaude?

—Eta...?

Jaionek barre egin zuen berriro.

—Jakina. Kolore guztietakoak.

—Eta beti neskak aritzen dira arraunean? — jakin nahi izan zuen Ainarak.

—Ez. Batzuetan neskak, bi traineru hauetan bezala, eta beste batzuetan mutilak —argitu zuen irakasleak—. Badakizue zein den estropaden jatorria?

Denek ezetz egin genuen buruaz.

—Baleekin du zerikusia —hasi zen azaltzen irakaslea—. Duela urte asko, euskal itsasertzean baleak bizi zirenean, herri guztiek ehizatu nahi izaten zituzten. Balea bat harrapatzen zutenek ez zuten goserik pasatzen denboraldi luze batean.



—Eta horrek ze zerikusi du kolorezko traine-ruekin? —eten zion Erikek. Txanotik tiratu nion isildu zedin. Hain ipurtarina beti; liburu bat irakurtzen diodan bakoitzean ere, galderaz josten nau.

Masta nagusitik zelatan geneukan kaio bat karranka hasi zen. Bazirudien Eriki isekaz ari zitzaiola. Nire nebak mesfidantzaz begiratu zion, eta txanoa jantzi zuen. Itsasotik hurbil egon ginen azken aldian, kaio batek kaka egin zion buruan. Urdaibain izan zen. Gogoratzen?

Jaionek bere azalpenekin jarraitu zuen.

—Balea bat itsasertzetik gertu agertzen zen bakoitzean, herri bakoitzeko arraunlari onenak traineruetara igotzen ziren. Ahal bezain bizkor egiten zuten arraun, irabazle bakarra egoten zen-eta. Animalari arpoia sartzea lortzen zuten lehenek, horiek eskuratzen zuten zatirik onena balea banatzeko unean.

—Eta zer egiten zuten baleekin, jan? —galdetu zuen Ainarak.


—Noski. Zer egiten duzu zuk arrainarekin? —galdetu zion Sarak.

—Eztabaidatu.

—Arrainarekin eztabaidatzen duzu?

—Ez... Gurasoekin, arraina janarazten didate-lako, eta niri ez zaidalako gustatzen.

Hori entzutean barrez lehertu ginen.



Aimarrek traineruak seinالاتu zituen. Arrosa pixka bat aurrerago zihoan, baina moreak berehala harrapatu zuen.

—Eta neska horiek ere baleak ehizatzeradoaz? —galdetu zuen arraunlariei begira.

Jaioneri begitartea tristetu zitzaion.

—Ez. Honezkero ez da balearik geratzen hemen. Azkena duela denbora asko ehizatu zuten. Horregatik eraiki zituzten gure arbasoek hau



bezalako itsasontziak —azaldu zuen galeoi baten aurrean geratuz.

Aho zabalik geratu ginen. Piraten filmetan ikusten direnak bezalakoxea zen.

—Sekulakoa da!

—Eta superpolita!

—Eta zertarako nahi zituzten hain ontzi handiak?

—Urrutira joateko. Kanadaraino joaten ziren, Atlantikoaren beste alderaino, baleak arrantzatzera —gaineratu zuen gizon batek gugana hurbilduz. Bizar motza eta begi urdinak zituen, eta txapela beltz bat eta kapusai hori bat, arrantza-leek erabiltzen dituzten horietakoa—. Ongi etorri Albaolara. Xabier naiz, San Juan baleontziko kapitaina. Urteak daramatzagu galeoia eraikitzen, eta ia prest dago nabigatzera ateratzeko. Lagunduko didazue bukatzen?

Elkarri begiratu genion, txundituta. Benetan lagundu genezakeen halako itsasontzi liluragarria eraikitzen?

—Bai, noski! —uste dut denok aldi berean esan genuela.

Xabierrek pozezko keinu bat egin zuen.

—Ea ba, ez dezagun denborarik galdu. Garaiz bukatuz gero, nabigatzera aterako gara.

Erikek eta biok aho zabalik begiratu genion elkarri.

Nabigatzera?

Benetan?

A ze txango aparta prestatu zigun Jaionek!

Erik eta beste lagun batzuk egurra alkaternaz igurzten jarri zituen Xabierrek. Espatula batzuk eman zizkien, eta kubo bat, usain sendoko likido beltz lodi batez betea. Itxuraz ez zen lanik dibertigarriena, baina bai garrantzitsuena, Xabie-

rrek esan zuenez. Alkaternari esker, ura ez zen ontzi barrura sartuko, eta, ozeanoaren erdian zaudenean, ez zait bururatzen hori baino gauza inportanteagorik. Zuei ere ez, ezta?

Sarak, Aimarrek eta beste lagun batzuek belak jartzen lagundu zuten. Oso handiak ziren.

—Basajaunen izara bezain handia da —esan zuen Sarak eskua astinduz.

—Bai zera!
Jentil-familia oso batena bezain handia —zuzendu zion Aimarrek.



Eta nor falta da? Ni, noski. Ni Ainararekin jarri ninduen Xabierrek. Txikotekin lagundu behar genion. Badakizue sokei txikot deitzen zaiela itsasoan? Mastetara lotu behar ziren, hau da, belei eusten dieten makiletara, eta handik ontzigainera. A ze soka-festa!

—Sei kilometro soka daude hau bezalako ontzi batean. Eskerrak plano hau daukagun non jarri behar ditugun jakiteko —esan zigun Xabierrek paper kiribilkatu bat erakutsiz—. O, ez! Planoa! Har dezala norbaitek!

Haize-bolada batek eskuetatik eramane zion, eta orain hegan zebilen batetik bestera, iseka egin nahi baligu bezala. Norbait papera harrapatzen saiatzen zen bakoitzean, ihes egiten zion. Eta planorik gabe, ezingo genuen galeoia bukatu.

—Hartu, Erik! —oihukatu nuen planoak nire nebaren aurpegiarekin talka egin zuela ikustean.

Baina haizea bizkorragoa izan zen orduan ere. Planoa hegan aterata zen berriro Erikek harrapatzerik izan baino lehen.

—Ez dadila uretara erori! —ohartarazi zigun kapitainak.

Beranduegi: papera karela gainetik hegan aterata eta itsasora erortzen. Sekulako tentel-aurpegia geratu zitzaigun denoi planoak ur gainean flotatzen ikustean, kaio haserretuen karranken erdian. Barrez ari zirela zirudien. Beti dabilta berdin; a ze txori antipatikoak.

—Eta orain zer egingo dugu? —galdetu nuen mastetan jarri beharreko soka luzeei begira.

—Ez kezkatu. —Ainara zen. Arropa erantzia zuen, eta bainujantzia zeraman azpitik. Jaionek geldiarazi egin nahi izan zuen, baina begi arrailduko gure laguna salto batez murgildu zen uretan.

Isilik geratu ginen denok, arnasari eutsiz. Xabierrek, presaka, flotagailu bat hartu eta bota egin zion, baina Ainarak ez zuen haren beharrik. Onena da igerian. Udan, hondartzara joaten garenean, beti izaten da bera bizkorren igeri egiten duena eta nekatu gabe gehien irauten duena.

—Harrapatu dut! —oihukatu zigun planoak erakutsiz.



Txalok gutxi iraun zuten, zeren berehala bota behar izan genion txikot bat itsasontzira itzultzen laguntzeko.

—Egin duzuna erokeria bat da. Ederra sustoa eman didazuna. Nola bururatzen zaizu itsasora salto egitea? Hau ez da hondartza; ur hauek askoz sakonagoak dira —egin zion errieta Jaionek eskuoihal bat ematen zion bitartean.

—Hotz zegoen? —galdetu zion norbaitek.

—Izoztuta.



Kapitainak planoak hartu eta mahai baten gainean zabaldu zuen. Arreta handiz aztertu ondoren, baiezko keinua egin zuen.

—Uste dut salbatu duzula. Marrazki batzuk pixka bat ezabatu dira, baina oraindik antze-man daitezke —esan zuen Xabierrek eskuak Ainararen sorbaldetan bermatuz—. Oso ausarta izan zara. Eskerrik asko.

—O, ez da ezer... Oso gogoko dut igeri egitea.

—Nola demontre ulertu behar dira marrazki hauek? —jakin nahi izan zuen Erikek. Hatza planoaren alde batetik bestera zerabilen, irudia osatzen zuten ehunka marren gaintik.

Xabierrek barre egin zuen.

—Konplikatua da. Begira, hemengo hauek guztiak egurrezko piezak dira. San Juan baleontzia bezalako bat eraikitzeko, berrehun haritz baino gehiago behar dira.

—Benetan? —galdetu genuen hainbatek batera—. Hainbeste zuhaitz moztu dituzue?

Kapitainak, gure atsekabea ikustean, lasaitu egin nahi izan gintuen:

—Haritz horiek orain dela urte asko landatu

zituzten hau bezalako itsasontziak eraikitzeko. Haien adarrak alde batera nahiz bestera okertu zituzten forma bereziak lortzeko. Ea egunen batean basora etortzen zareten zuhaitzak nola hautatzen ditugun ikustera. Eta gero, hartzen dugun zuhaitz bakoitzeko, beste hainbat landatzen ditugu. Horrela bermatzen dugu basoaren geroa.

—Bai! Joan gaitezke egun batean basora, Jaione?

—Mesedez, Jaione...

Bat-batean, denok aldi berean ari ginen hizketan, beti bezala.

Mastetako batetik zelatan geneukan kaioa hegaldatu egin zen karranka zaputzen artean. Ez zuen gogoko itsasontzian halako zarata izatea. Hegan zihoala kaka-zirin bat bota zuen. Denok biratu ginen Erikenganantz.

—Nire buruan eroriko zela uste zenuten, e?
—esan zuen isekaz.

Berak ere hori pentsatzen zuen, burua eskuez estali baitzuen badaezpada ere.

Oraingoan zortea izan zuen, kaka haren ondoan erori baitzen. Ozta-ozta libratu zen.



ARAZOAK

—Prest zaudete abiatzeko? —Xabier masta nagusira igoa zen, eta han goitik ari zitzaigun hizketan. Txiki ikusten zen hain goian.

—Baaai!

Besteengana biratu nintzen. Iruditu zitzaidan askok ez zutela ahorik ireki.

—Zumaiaraino joango gara. Ikusiko duzue zein itsaslabar politak dauden —iragarri zigun Xabierrek.

—Eta arrainak ikusiko ditugu?

—Eta olagarroak?

—Eta karramarroak?

—Eta...?